

Bero-beroan

ONINTZA IRURETA

Ikasleak D ereduan

EUSKAL Autonomia Erkidegoan 291.319 ume matrikulatu dira 817 ikastetxetan (501 ikastetxe publiko eta 316 ikastetxe kontzertatu). Horietatik 3 eta 16 urteko haurren %56,01ek euskara hutseko D ereduan eman dute izena. %23,1 B eredu elebidu-nean hasiko dira, eta gaztelania hutseko A ereduan (euskara ikasgai izango dute) ikasleen %20,89 hasiko dira.

Hizkuntza gutxituak sarean

NAZIO BATUEN ERAKUNDEAK sustatutako foroa da Interneteko Gobernagarritasun Foroa eta azaroaren 12tik 15era izango da Rio de Janeiron (Brasil). 2.000 lagunek parte hartuko duten foroan, besteak beste, sareko hizkuntzei buruz arituko dira, besteren artean ingelesaren nagusitasunaz hitz egingo dute. Parte hartzaileek

hizkuntza gutxituak sustatzeko moduak ere aztertuko dituzte, bereziki grafia latindarrarekin idazten ez diren hizkuntzak.

“Mihiluze” katalanez

URRIAREN 1ETIK AURRERA Katalunia-ko TV3 telebista kateak “Mihiluze” saioaren katalanezko bertsioa emango du, “Bocamoll” izenarekin. Antartida ekoiztetxeak egingo du lehiaketa eta grabazioak iraileko azken astean hasiko dituzte. ETB1etik TV3ra egokitzen den lehen saioa da.

EEPk Seaskari laguntza handiagoa

EUSKARAREN ERAKUNDE PUBLIKOAK 95.000 euroen ordean, 200.000 euroko diru-laguntza emango dio Seaskari ikasturte berriari begira. Ikastoletako arduradunek aurrerapauso garrantzitsua dela nabarmendu dute; hala ere,

80.000 euroko galera duen aurrekontua onartu behar izan du Seaskak.

Eusko Jaurlaritzaren xedapenak Hizkuntz Politikak aztertuko ditu

EUSKO JAURLARITZAK onartzen dituen dekretu eta xedapen orokor guztiak Hizkuntz Politikarako Sailburuordetzak aztertuko ditu, hizkuntz normalizazioa bermatzen duten eta euskararen inguruko legeria betetzen duten ala ez ikusteko. Sail guztiek derrigorrez bete beharko dute prozedura hori, baina Hizkuntz Politikarako Sailburuordetzak egingo dituen txostenak ez dira betearazleak izango.

Euskararen Institutua

NAFARROAKO GOBERNUAK sortu berri duen erakundearen asmoa euskara berreskuratu, sustatu eta gartztea omen da.

BAHEA

Miquel Strubellek kornubierari (Ingalaterrako hizkuntza) buruz gipuzkoacuskara.net-en esanak: “Jenefer-ek ametsetan ere ez zuen pentsatuko, txikitant gurasoengandik –gaur eskolako ikasleak, ziurrenik– ikasi zuen kornubiera bere ogibidea izango zenik. Baina, gaur, lortezina dirudien helburuarekin sortutako erakunde batean lan egiten du. Helburu hori kornubiera berreskuratzea da. Azken hiztunak orain dela mende eta erdi hil ziren eta azken idatzia 1776koa da, eta, orain, erakunde horrek eskoletan, errokulazioan eta administrazioan hizkuntza bizi gisa sartzea lortu nahi du, laguntza ofizialarekin”.

Carlos Pérez Nievas, Nafarroako Gobernuako Hezkuntza kontseilariak Bernian esanak: “Ea alderdi nazionalistek nola tratatzen dituzten A eta G ereduak. (...). Guri, UPNri eta CDNri, inork ezin digu erran modu sektario batean aritu garela herritarrek onartzen duten eredu bat baztertzeko lanean. Eredu ez euskalduneko ikastolak guk legeztatu ditugu”.

Iruzur fiskalak

Gipuzkoako Foru Aldundiak sozietateen gaineko zerga %32,6tik %30era eta enpresa txikientzat %24ra jaistea adostu du. Batzar Nagusien erabakiaren zain, azkenean zerga hori onartuko balitz, Gipuzkoako Foru Ogasunak 89 milioi euro gutxiago bilduko lituzke. Bizkaia eta Araban %28an dago zerga hori eta Nafarroan %32,5ean. Inoiz asebetetzen ez den Patronalak %24rainoko jaitsiera eskatzen du. Praktikan, ordea, zerga hori, hainbat dedukzio eta iruzur fiskalen ondoren, %14 eta %18 arteko batezbestekora murrizten da. Baina, zergatik ez dago batasun fiskalik Hego Euskal Herriko lau Aldundiek enpresen interesei men egiten baldin badiete? Hainbat interes politiko dago jokoan. Hori oso argi geratu da zerga

horren negoziatioetan Gipuzkoan. EAJk Araba eta Bizkaian %28ko tasa orokorra mantendu du, aldiz, Gipuzkoan EA gobernu-kideak eskatutako %30a onartu du. EAEko batasun fiskala hautsi du horrenbestez, baina ez enpresarien mesedetan izango diren etekin fiskalak, azken finean Araba eta Bizkaian lortuko dituzten oso antzekoak izango baitira. Bi alderdiek iruzur fiskalak erabiliz egin duten eragiketa estetikoa izan da; azkenean enpresarien mesedetan. Politika fiskal horiekin Hego Euskal Herrian diru-kutxa publikoek urtean 300 milioi euro gutxiago jasoko dituzte. Beti bezala, politika sozialen bizkar.

Juan Mari Arregi

Gerra doinuak datozen sei hilabeteetarako

EZ DAGO ETENIK, atentatuak eta atentatu saioak bata besteari atzetik datoz. Berdin atxilotuekin. Berririk ez alde horretatik. Eta saio bakoitzean arnasa hartzen da han-hemenka, oraindik hildakorik ez delako jarri une zehatz honetako joko politikoan. Logroñon azken saioa, ETaren azken agiriaren biharamunean.

ETaren idatzizko jardunean ere zaharrak berri. Erasoak bere ingurune politiko osora barreiatu ditu, oraingoan bereziki PSOE eta Nafarroa Bai kritika politikoaren jo puntuan jarritz. Lerro politiko eta militarra jarria dago datozen hilabeteetarako, gutxienez martxoko Espainiako hauteskundeak arte. Gero eta gehiago, hauteskunderik hauteskundero zubi motz edo luzeagoetan dago oinarrituta egungo zuzenbide estatua.

Moncloan ere pareko da, egurraren garaia; ondoren, PSOEek irabaziz gero, posible litzateke berriz ere elkarrizketaren zirrikitua irekitzea. Nafarroako salbuespena kenduta, egungo egoera politikoa pentsatu baino erosoago garatzen ari da Ferrazen. Haizea bere alde du Jose Luis Rodríguez Zapaterok eta Jose Mari Aznarrek, aldiz, nahiko lan du lidergoa eta barne mailako lehiek. Bake prozesua dela eta horren estu ibili ondoren, PPri espazioa jan dio Espainiaren ideia eta ETaren aurkako borroka ardatz politikoaren erdigunean jarritz.

BAKE PROZESUAN, parte hartutako hirugarren erpin handia ere ez da geldi egotekotan, ez behintzat eremu instituzionala gidatzen duen Juan Jose Ibarretxe. Erabakimenaren eztabaida bultzatuko duela erakusten ari da atzerrira egiten dituen bidaietan



Barne Sailak AAMren manifestazioa debekatu ondoren, Donostian istilu gogorak izan ziren iragan igandean.

ere, eta bere inguruko askok legealdi honetan kontsultarik ere izango dela azpimarratzen dute. Hori sinesgaitzagoa da oraindik, baina hilaren bukarako Gasteizko Legebiltzarrean ekimen sendoren bat iragarriko duen ustea zabaldua dago. PSOE eta ETari bake prozesuaren porrota leporatu ondoren, bere txanda dela adieraziko du. Madrilgo Kongresuan Estatutu berriaz egin zuen defentsak sinesgarritasun maila bat eman zion euskal herritar askoren artean. Baina langa han du, ez beherago.

Iragarriko duena aurrera eramateko, halaber, denbora beharko du, azken legealdi bat, alegia. Eta denak adierazten duenaren arabera, bere alderdiak behar du, ez bakarrik maila horretako liderrik ez duelako, barne mailako kontsentsu bidean pieza garrantzitsua ere badelako. Izatekotan Ibarretxek berak izan ditzake zalantzak, joan den legealdian ozen adierazi baitzuen gatazka politiko bortitza bideratu ezean, hurrengo belaunaldiak hartu beharko lukeela lekukoa.

Edozein eratan, Madrilke estu hartzen du Gasteiz, Donostian joan den Igan-dean izandako istiluek hori erakusten dute. Demokrazia eta zuzenbide estatuaren ikuspegitik nekez onar liteke Amnistiaren Aldeko

Mugimenduak deitutako manifestazio hori debekatzeari. Madrilke egiten du legea, baina legeak era desberdinean jar daitezke indarrean, beste askotan egiten den moduan. Eta legearen gaintik salto ere egin daitezke batzuetan. Nola egingo da bada, bestela, Espainiako legediak debekatzen duen kontsulta ospetsua? Edo zuzenean edo zeharka haren gaintik jauzi eginez, bestela jai, betirako gainera.

EUSKARAREN Institutua sortu du Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Sailak, CDNko Carlos Perez-Nievas sailburuaren eskutik. Zaila da irudi urrats batetik haratagoko zerbaiten sinestea, baina posible ere bada. Batetik, UPNk irudi malguagoa eskaintzeko asmoa bide du legealdi honetarako; bestetik, azken urteetan CDNk ukitu kritikoa agertu izan du Miguel Sanzen alderdiaren hizkuntz politikarekin. Zaila da aldaketa nabarmenetan sinestea, Euskararen Legea bera erreformatuta edo beratu begi onenekin kudeatuta ere, UPNren urteetako Gobernuaren hizkuntz triskantzak konpontzeak bide luzea behar duelako.

Baina detaile txikiak ere interesgarriak dira. Iruñean zabaldu berri den Institutu batean, oraingo Hezkuntza sailak onartu egin du zuzendaritza taldean (bost pertsona) erdal eredu bakoitza bakar bat izatea eta ez bi, aurrekoak nahi zuen bezala. Pragmatismoa ere izan liteke, baina UPNkoek onartuko ez luketen pragmatismoa seguruenik. Detaile txiki asko daude egunerokotasunean, eta horietan laster ikusiko da Perez-Nievasen jarrera nolakoa den.